



ORDENANTZA ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA. ETXE ABEREEN ARAU-HAUSTE LARRIEN ZIGORRAK EZARTZEKO ESKUMENA GOBERNU BATZARRARI EMATEA.

AURREKARIAK

Lehena.- 6/1993 Legeak, urriaren 29koak, Animaliak Babestekoak bere III. Kapituluaren 32. artikuluan eta Tolosako Udaleko Etxe abereen udal ordenantzak bere IV tituluaren 14. artikuluan hau xedatzen dute:

1.- Arau-hausteei dagozkien zigorrak ezartzea honako organoei dagokie:

- a) Alkateei, arau-hauste arinetan.
- b) Udalaren osoko bilkurari, arau-hauste larrietan.
- c) Foru Aldundiaren eskudun organoari, arauhauste oso larria denean.

2. Udalek foru organoek ebatzi behar dituzten zigor espedienteak irekitzen dituztenean, ezarritako isunen zenbatekoak espedientea ireki duen udalaren gordailuan sartuko dira.

Bigarrena.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 22.4 artikuluan hau xedatzen du: "4. Osoko bilkurak alkateari eta tokiko gobernu-batzarrari eman diezazkieke bere eskumenak eskuordetzan; baina, salbuespen dira artikuluko honetako 2. paragrafoko a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) idatz-zatietan eta 3. paragrafoan zehaztutakoak.". Honek kanpo uzten du q) idatz-zatia, non hau esaten duen: "q) Legeek berariaz emandako gainerakoak."

Beraz, honengatik guztiagatik ondoko proposamena luzatzen diot Udaltzaingoa eta Mugikortasuna Udal Batzorde Informatiboari, honen irizpena eman dezan, Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartuta izan dadin.

PROPOSAMENA

Aipatutako guztia aintzat harturik, 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenean aurreikusitakoaz baliatuz, gaur egun Osoko Bilkurarena den eskumena, Tokiko Gobernu Batzarrera eskuordetzea, Tolosako Udaleko Etxe abereen udal ordenantzaren arabera infrakzioak larriak diren kasuetan, dagokion irizpena egiteko eta hau aldekoa bada, dagokion Udaleko Osoko Bilkuran eztabaidatua eta onartuta izan dadin.



TOLOSAKO UDALTZAINGOA ETA MUGIKORTASUNA
Policía Municipal y Movilidad



Beraz, Tolosako udaleko udalbatza plenoari proposatzen zaio ondoko irizpena onartzea:

IRIZPENA

LEHENA.- Ordenantza aldaketa hasieraz onartzea; Etxe abereen arau-hauste larrien zigorrak ezartzeko eskumena Gobernu Batzarrari ematea.

BIGARRENA.- Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta udaleko web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Tolosako Musika Bandari jakinaraztea.

Udaltzaingoa eta Mugikortasunak , 2018ko azaroaren 22ko bilkuran, proposamena onartzearen aldeko diktamina jaulki dute.

ALDEKO BOTOAK: Olatz Peon Ormazabal alkatea, Maite Ruiz de Egilaz EAJ, Ibai Iriarte San Vicente BILDU.

Tolosan, 2018ko azaroaren 22an

Luis Mari Lasa Jauregi



Tolosako Udaltzainburua